ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Ostalari agurgarriak:

Elgoibarko Udalak, berriro ere, abian jarriko du XII. Pintxo Lehiaketa.

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, ekitaldi honek bi urte daramatza egin gabe, eta aurten, 2022an, berriro ere plazaratu nahi dugu.

Hori dela eta, idatzi honen bidez, ekitaldi hori zein egunetan izango den adierazten dizuegu, zuen laguntza behar baitugu aurrera eraman ahal izateko.

**Parte hartzaileak:**

Lehiaketan Elgoibarko ostalariek parte hartu ahal izango dute, baldin eta haien establezimenduetan, urte osoan, pintxoak eskaintzen badituzte.

**Izen-emate epea:**

Eguna: Irailaren 5etik 12ra arte.

Ordua: 7:30etatik 15:30etara
Lekua: Elgoibarko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzua (Santa Ana kalea, 2)

**X. Pintxo Lehiaketaren egunak:**

**Egunak:** 2022ko urriaren 19a, 20a eta 21a.
**Ordutegia:** 19:00etatik 22:00etara.

Estimados/as hosteleros/as:

El Ayuntamiento de Elgoibar vuelve a retomar la puesta en marcha del XII. Concurso de Pinchos.

Por motivo de la pandemia del COVID-19, este evento lleva dos años sin celebrarse y este año 2022 se quiere volver a sacar a la calle.

Para ello, os enviamos este escrito con todas las fechas del evento, ya que necesitamos vuestra ayuda para poder celebrarlo.

**Participantes:**

Podrán tomar parte en el concurso la hostelería de Elgoibar que ofrezcan en su establecimiento pinchos durante todo el año.

**Plazo de inscripción**:

Fecha: del 5 de septiembre al 12 de septiembre.
Horario: De 7:30h a 15:30h
Lugar: Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Elgoibar (Calle Santa Ana, 2).

**Fecha del XII. Concurso de Pinchos:**

**Fechas**: 19, 20 y 21 de octubre de 2022.

**Horario**: de 19:00 a 22:00.

**Pintxoaren osagaiak aurkezteko epea:**

Azken eguna irailaren 20a, asteartea.

**Pintxoaren argazkia egiteko eguna:**

Irailaren 28a, asteazkena

**Lehiaketarako materiala banatzeko eguna:**

Uriaren 17a eta 18a

**Sari Banaketa:**

Urriaren 26a, asteazkena

Aldez aurretik eskerrak emanez, har ezazue agur bero bat.

**Plazo para presentar los ingredientes del pincho:**

Último día el 20 de septiembre, martes.

**Fecha para sacar la foto del pincho:**

El 28 de septiembre, miércoles.

**Días del reparto del material del concurso:**

El 17 y 18 de octubre.

**Reparto de premios:**

El 26 de octubre, miércoles.

Gracias de antemano y un cordial saludo.

Elgoibar, 2022ko uztailaren 19an / 19 de julio de 2022
ALKATEA / LA ALCALDESA,

Iz. / Fdo. Ane Beitia Arriola

**ELGOIBARKO XI. PINTXO LEHIAKETA**
**XII. CONCURSO DE PINCHOS DE ELGOIBAR**

Udalak, bi urteren ostean, berriro ere abian jarriko du pintxo lehiaketa, eta horretarako, pintxo lehiaketaren oinarriak gogorarazten dizkizue.

Lehiaketaren helburu nagusia da ostalaritzako sektorean euskararen erabilera bultzatzea, eta bidenabar, Elgoibarko gastronomia suspertzea.

Gure ustetan, lehiaketa hau garrantzitsua da, ostalaritzako establezimendu guztiek, aukera honetaz baliatuta, beraien sukaldaritza erakusteaz gain, bezero berriak lortzeko parada izango dutelako. Hori dela-eta, Elgoibarko Udalak Elgoibarko XII. Pintxo Lehiaketa antolatu du; eta bide batez, lehiaketa horretan parte hartzeko gonbita egin nahi dizuegu.

**OINARRIAK**

**1. PARTE HARTZAILEAK**

- Lehiaketan Elgoibarko ostalariek parte hartu ahal izango dute, baldin eta haien establezimenduetan, urte osoan, pintxoak eskaintzen badituzte.

- Lehiaketan parte hartzeko, oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia onartu beharko dira.

- Izen-ematea doakoa da, eta **epea irailaren 5etik 12ra artekoa izango da (15:30 baino lehen).** Establezimenduaren datuez gain, pintxoaren izena (euskaraz) ahal baldin bada eta oinarrizko osagarriak adierazi

**ELGOIBARKO XII. PINTXO LEHIAKETA**
**XII. CONCURSO DE PINCHOS DE ELGOIBAR**

El Ayuntamiento retoma después de dos años el concurso de pinchos y para ello, os recuerda las bases del concurso.

El principal objetivo del concurso se trata de impulsar el uso del euskera en el sector hostelero y con ello fomentar la gastronomía de Elgoibar.

Creemos que es un gran momento para que cada uno de los establecimientos de hostelería aproveche esta oportunidad para mostrar la oferta de su cocina como para poder captar nueva clientela. Para ello, el Ayuntamiento de Elgoibar va a organizar el XII. Concurso de Pinchos de Elgoibar, al cual le queremos invitar mediante el presente escrito.

**BASES DEL CONCURSO**

**1. PARTICIPANTES**

- Podrán tomar parte en el concurso la hostelería de Elgoibar que ofrezcan en su establecimiento pinchos durante todo el año.

- Participar en el concurso, supone admitir estas bases y la decisión del jurado.

- La inscripción es gratuita, y **el plazo es del 5 al 12 de septiembre antes de las 15:30h**. Además de los datos del establecimiento se deberá especificar el nombre del pincho (en euskara) a poder ser y los ingredientes básicos.

beharko dira. Izena emateko inprimakia bete, eta ondoko helbidera eraman beharko da:

**Elgoibarko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzua**
Santa Ana, 2
943 74 10 50
arreta@elgoibar.eus

## 2. DATA

- Urriaren 19, 20 eta 21ean, 19:00etatik 22:00etara.

## 3. PINTXOA

- Establezimendu bakoitzak pintxo bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketara.

- Pintxo deitzen zaio gainean janari puska txiki bat daraman ogi xerrari. Pintxo deitzen zaio, tradizioz, janaria eta ogia zotz batekin lotzen zirelako (hala ere, hau ez da pintxoen nahitaezko ezaugarria izango).

- Pintxoak originala izan behar du**,** eta prestaera guztiz librea izango da. Pintxoa, bestalde, tabernako edo jatetxeko sukaldean bertan prestatuko da.

- Pintxoak euskarazko izena izan beharko du.

- Lehiaketara aurkeztutako pintxoa jendearen esku egongo da lehiaketak irauten duen hiru egunetan.

Para inscribirse, rellenar el impreso de solicitud y entregarlo en:

**Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Elgoibar**
Santa Ana, 2
943 74 10 50
arreta@elgoibar.eus

## 2. FECHA Y HORARIO

- 19, 20 y 21 de octubre de 19:00h a 22:00h.

## 3. PINCHO

- Cada establecimiento podrá presentar un único pincho a concurso.

- Se llama pincho a una pequeña rebanada de pan sobre la que se coloca una pequeña porción de comida. Recibe dicho nombre porque tradicionalmente se sujetaba la comida al pan con un palillo (aunque esta no sea una característica obligatoria).

- El pincho debe ser original, su elaboración será totalmente libre y se cocinará en la cocina del propio bar o restaurante.

- El pincho deberá tener un nombre en euskara.

- El pincho presentado a concurso deberá estar a disposición del público durante los tres días que dure el mismo.

- Ostalariek hitzemango dute lehiaketak sortuko duen eskariari aurre egiteko adina pintxo izango dutela.

- Izena ematen duten establezimenduek, nahitaez, *Elgoibarko XII. Pintxo Lehiaketaren* kartel ofiziala erakutsi beharko dute ageriko lekuren batean. Horrek lehiaketan parte hartzen dutela adieraziko du.

- Pintxoa behar bezala identifikatu beharko da lehiaketako logotipoarekin.

- Parte hartzaile guztiei doan emango zaie lehiaketako publizitate material guztia: kartelak, etiketa eta logotipoak, esku-orriak, …

- PREZIOA: Lehiaketara aurkezten diren pintxo guztiek salmenta prezio bakarra izango dute, hain zuzen ere, 1,60 €-koa. Prezioa argi eta garbi adierazi beharko da.

- Los/as hosteleros/as deberán comprometerse a tener un número suficiente de pinchos como para atender la demanda que genere el concurso.

- Los locales inscritos, mostrarán obligatoriamente y en lugar visible el cartel oficial del *XII Concurso de Pinchos de Elgoibar*, lo cual les acreditará como participantes en el mismo.

- El pincho deberá estar perfectamente identificado con el logo del concurso.

- Se facilitará a todos/as los/as participantes de forma gratuita todo el material publicitario del concurso: carteles, etiquetas-logo, hojas …

- PRECIO: Todos los pinchos presentados a concurso tendrán un precio único de venta de 1,60 € que se deberá indicar claramente.

## 4. EPAIMAHAIA ETA EMAITZA

- Epaimahai teknikoa: pintxo onenaren lehenengo eta bigarren sariak esleitzeko ardura izango du. Erabakia arrazoitua eta apelaezina izango da, eta kide bakoitzak pintxoa bere osotasunean baloratuko du, honakoak kontuan hartuta: pintxoaren itxura eta aurkezpena; zaporea eta testura; eta originaltasuna.
  Epaimahaia lehiaketaren lehenengo bi egunetan establezimendu guztietara joango da, pintxoen kalitatea ebaluatzeko asmotan. Lehiaketaren azken egunean, bestalde, epaimahaia, berriro ere, lehiaketaren irabazle izan

## 4. JURADO Y FALLO

- El jurado técnico: tendrá la labor de asignar el primer y segundo premio al mejor pincho. La decisión del jurado será razonada e inapelable, y cada componente valorará el pincho globalmente teniendo en cuenta los siguientes aspectos: presentación, sabor, textura, elaboración y originalidad del pincho.
  El jurado pasará por todos los establecimientos participantes los dos primeros días del concurso con el fin de evaluar la calidad de los pinchos. El último día del concurso el jurado volverá a pasar por los

daitezkeela uste duen establezimenduetara joango da

- <u>Herritarren epaimahaia</u>: nahi duen herritar orok bozkatzeko aukera izango du. Horretarako, lehiaketan parte hartzen duen taberna bakoitzean kutxa bat izango da taberna horretako pintxoaren balorazioa emateko (1etik 10era). Balorazio-kupoia ostalariek emango dute pintxoa erosterakoan. Parte hartzen duten guztien artean, sari bat zozkatuko da.

- Erabakia establezimendu irabazleei jakinaraziko zaie, eta egoki deritzen hedabideetan argitara emango da.

## 5. OSTALARIENTZAKO SARIAK

- Pintxo onenaren lehenengo saria: txapela + diploma + 300 €-ko erosketa-txartela Txankakuan inskribatutako saltokietan trukatzeko.
- Pintxo onenaren bigarren saria: txapela + diploma + 150 €-ko erosketa-txartela Txankakuan inskribatutako saltokietan trukatzeko.
- Herritarren saria: txapela + diploma.

- Sari banaketari buruzko xehetasunak aurrerago iragarriko dira. Sari banaketa urriaren 26an egingo da.

establecimientos que haya clasificado como posibles ganadores del concurso.

- <u>Jurado popular:</u> podrán votar todas las personas que lo deseen, en las urnas que a tal efecto se instalen en los establecimientos participantes. El cupón para votar lo facilitaran los/as hosteleros/as a la hora de adquirir el pincho, que se valorará de 1 a 5 puntos. Entre todas aquellas personas que voten se sorteará un premio.

- El fallo se comunicará a los establecimientos ganadores y se publicará en los medios de comunicación oportunos.

## 5. PREMIOS PARA LOS HOSTELEROS

- Primer premio al mejor pincho: txapela + diploma + cheque de compra de 300 € para canjearlos en los establecimientos inscritos en Txankakua.
- Segundo premio al mejor pincho: txapela + diploma + cheque de compra de 150 € para canjearlos en los establecimientos inscritos en Txankakua.
- Premio del público: txapela + diploma.

- Los detalles de la entrega de premios se anunciarán más adelante. La entrega de premios será el 26 de octubre.